



AGINDUA, 2013ko uztailaren 31koa, Ingurumen eta Lurralde Politikarako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen Lege-aurreproiektua egiteko prozedura hastea agintzeko dena.

Autonomia Estatutuko 10.32. artikulua araber, Euskal Autonomia Erkidegoak portuen gaineko eskumen eskusiboa du, interes orokorrekotzat jo ez diren portuetan betiere.

Eskumenak ematen dituen arau hau gauzatzearren, ondasunak eta zerbitzuak eskualdatu ziren maiatzaren 14ko 2380/1982 Errege Dekretuaren bidez (Estatuak portuen arloan dituen zerbitzuak EAEn esku uzteari buruzkoa).

Gaur egun, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak gauzatzen du portuen eskumena, Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuko 13.1. artikulua k) paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik; izan ere, dekretu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dira, eta haien funtzioak eta jardun-arloak finkatzen dira. Beraz, Ingurumen eta Lurralde Politika Saila da Portuko Administrazio eskuduna EAEn titulartasuna duten portuei dagokienez.

Bada, interes orokorrekotzat sailkatuta ez dauden portuen gainean EAE izan arren guztizko eskumen legegilea eta betearazlea, autonomia-erkidegoaren legegileek orain arte ez dute esku hartu gaia modu integralean heltzeko, portuen lege propio baten bitartez; horregatik, premia atzerazina bihurtu da sustatutako arau-proiektua egitea. Egia da aurreko legegintzaldietan izapidetutako eta onartutako bi proiektu egon direla, baina haietako batek ere ez zen onartu Legebiltzarrean. Oinarri gisa, bi testuak erabiliko dira lege-proiektu berria egiteko.

Lege-proiektu hau egiteko eta izapidetzeko prozedura egokituko da Lege honek jasotako preskripzioetara: Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legea (XOEPL aurrerantzean).

Ildo horretatik, XOEPL legeak 4.1. artikuluan xedatzen du aipatu prozedura abiaraziko dela proiektuko arau-xedapenaren dena delako gaitan eskumena daukan sailaren titularra den sailburuaren aginduz; eta araua egiteko prozeduraren oinarria eta ardatz nagusia izango da testu hori.

Azaldutakoa aintzat hartuta, eta XOEPLren 5.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, hasteko Aginduak izan beharreko edukia espezifikatzen baitu,

EBAZTEN DUT:

LEHENENGOA.- Agindu honen xedea eta eskumena, prozedura hastea agintzeko.

- 1.- Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Portuei buruzko Lege-aurreproiektua egiteko erabiliko den prozedurari hasiera ematea.
- 2.- Aipatutako prozedura hastea agintzeko eskumena Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari dagokio, XOEPLren 4.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren 13. artikulua 1 k) paragrafoan xedatutakoari lotuta; izan ere, dekretu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dira, eta haien funtzioak eta jardun-arloak finkatzen dira.

BIGARRENA.- Euskal Autonomia Erkidegoko Portuei buruzko Legearen aurreproiektuaren xedea eta helburua.

Hauek dira Euskal Autonomia Erkidegoko Portuei buruzko Legearen aurreproiektuaren helburuak:

- 1.- Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko portuak zehaztea eta portuko jardueren gune berezituak definitzea.
- 2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Portuko Administrazioaren egitura eta funtzionamendua ezartzea.
- 3.- Euskal titulartasuna duten portuei dagokienez, hauek arautzea: planifikazioa, ustiapena, eraikitzea, zabaltzea, berritzea eta mantentzea.
- 4.- Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena den portu-jabari publikoaren kudeaketa arautzea, eta erabilera-araubidea ezartzea.
- 5.- Euskal titulartasuna duten portuetako zerbitzuak eskaintzeko araubidea zehaztea, eta bai portuetarako sarbidea eta portuen erabilera ere.

6.- Autonomiako portuen jabari publikoan, arau-hausteen eta zehapenen araubidea ezartzea, eta bai EAEko Portu Administrazioari dagozkion ikuskatze-, zaintze- eta polizia-ahalak ere.

7.- Ekonomia- eta finantza-araubidea erregulatzea autonomia-erkidegoaren portuko jabari publikoaren erabileraren eta portu-zerbitzuak ematearen ondorioz, aldaketa ezin bada sartu Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legean Aurrekontuen Legearen bidez.

HIRUGARRENA.- Bideragarritasun juridikoa eta materiala aztertzea.

a) Bideragarritasun juridikoa.

Adierazi denez, interes orokorrekotzat sailkatuta ez dauden portuen gainean guztizko eskumen legegilea eta betearazlea EAE izan arren, orain arte, euskal legegileek ez dute esku hartu gaia modu integralean heltzeko, portuen lege propio baten bitartez, eta arautze autonomikoa zatikatua eta sakabanatua da esparru honetan.

Izan ere, Portuko Lanei buruzko Araudia onartzen duen urriaren 21eko 236/1986 Dekretuak baino ez du partzialki jarri arreta gai honetan, portuen esparruko arau autonomiko nagusia baita, 1982an egindako transferentzia gauzatzeko onartu ondoren.

Portuko Lanei buruzko Araudiak portu-agintaritza eman zion sail honi, eta portu-antolakuntzarako eskumenak erabiliz gauzatzen da agintaritza hori; gainera, jabari publikoa kudeatzen du eta portu-zerbitzuak ematen eta kontrolatzen ditu. Era berean, esparru horretan egindako arau-hausteen zehapena erregulatu zuen Portuko Lanei buruzko Araudiak.

Dena dela, Administrazioaren zehapen-ahala lege-mailako arau baten bidez berariaz esleitutakoan soilik erabil daitekeenez, Portu Administrazio honek ezin izan du aplikatu Portuko Lanei buruzko Araudietan aurreikusitako zehapen-araubidea, aipatu xedapenaren arau-mailaren ondorioz.

Autonomiako sektore-araudia bi arauzko xedapenekin osatzen da, orain arte erregulatu diren portu-zerbitzuetako biri buruzkoak: kirol portuen ustiapena eta zerbitzugunean ibilgailuentzako aparkalekuak.

Kirol-portuei dagokienez, antolamenduan jasota dauden kudeaketa-moten bidez ematen da zerbitzu publiko hori, hau da: zuzeneko eta zeharkako kudeaketa emakidadunaren bidez.

Egungo arau autonomikoak zuzeneko kudeaketa bidez ematea erregulatzen du zerbitzua, eta hauek bereizten ditu:

1.- Zuzeneko kudeaketa deszentralizatua edo bereizia, EUSKADIKO KIROI PORTUA (EKP) sozietate anonimo publikoaren bidez egina; pertsonifikazio juridiko-pribatua dauka sozietate horrek, eta 2000. urtean sortu zen; haren kapitala EAeko administrazioarena da osorik, eta sail honi atxikita dago. Sozietatea sortzeko araua 105/2000 Dekretua da, ekainaren 6koa, maiatzaren 29ko 105/2001 Dekretuak aldatua.

2.- Zuzeneko kudeaketa zentralizatua edo bereizi gabea, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzaren eta hari lotutako lurralde-zerbitzuen bidez. Aipatutako zuzendaritza-organoak eskumena du amarratzeko postuak erabiltzeko baimenak emateko. Horretarako, Garraio eta Herri Laneko sailburuaren 2004ko apirilaren 20ko Agindua eman zen; amarratzeko postuak erabiltzeko aldi baterako baimenak emateko prozedura arautzen du.

Aurreproiektua egiteak balioko du erabilitako ereduaren egokitasunari buruz hausnarketa egiteko: EKPren kirol portuen kudeaketa zuzena eta deszentralizatua.

Bestalde, ibilgailuak zerbitzu-gunean aparkatzeari dagokionez, Garraio eta Herri Laneko sailburuaren 2006ko irailaren 6ko Aginduak arautu zuen portu-zerbitzu hori, eta zerbitzua emateko moduak finkatu ziren.

Azkenik, EAek, bere finantza-autonomia baliatuta, zergak erregulatu ditu lege-mailako arauen bidez. Horrenbestez, autonomiako portuen jabari publikoaren erabileraren eta portu-zerbitzuak -portu-tasak- ematearen ondoriozko ekonomia- eta finantza-araubidea, egun, hauetan dago jasota: Euskal Autonomia Erkidegoko Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bateginean (irailaren 11ko 1/2007 Legegintza Dekretuak onartua), eta irailaren 29ko 248/1998 Dekretuan (EAeko Administrazioaren eta hari lotutako erakunde autonomoen tasen eta prezio publikoen kudeaketaren zenbait alderdi arautzen ditu).

Autonomian portuei buruz dauden arauak gutxi direla eta sakabanatuta daudela ikusita, gaur egun arte Estatuko arauak erabili dira haien osagarri, Autonomia Estatutuko 21. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, argi agintzen baitu EAeren eskumen eskusiboko gaietan EAetik bertatik sortutako

zuzenbidea dela aplikatu behar dena beste edozeinen aurretik, eta hura egon ezean soilik aplikatuko dela haren ordeztatu Estatuko zuzenbidea.

Hemen deskribatzen den egoera, hortaz, bada nahiko justifikazio euskal titularitateko portuei lege-mailako arau bidez arautze integrala ematea premia atzeraezina izateko, orain bultzatu nahian gabiltzan aurre-proiektu honen xede argi adierazia baita bere araubide juridikoko funtsezko gai guztiak landuko dituen oinarri juridiko berria eratzea.

b) Bideragarritasun materiala.

Ukaezina da Euskadik itsasoarekin eta portuko jarduerarekin historian izan duen ekonomia- eta gizarte-lotura, eta etorkizunari begira, argi dago gure ekonomiaren, gizartearen eta politikaren bilakaerak harreman estua izan behar duela portuetan garatu daitezkeen jarduerekin, hainbat jardura garatu ahal izateko beharrezko azpiegiturak daudelako, hala nola, merkataritza, arrantza, aisiako itsas kirolak eta itsas jarduerak, eta aisiarekin batera, turismoa.

Eta, hala da: Euskadiko tradiziozko kirol eta aisia ohiturek, eta itsasertzaren turismo-garapenak ekarri dute portuak, eta kiroleko eta aisialdiko portu-instalazioak eraiki eta antolatzea, kalitatezko eta aisialdirako turismoarekin lotuta; gainera, lurraldearen eta portua kokatzen den udaletako ekonomia ereduaren gain eragina daukatenez, kontuan hartu behar dira Euskadiko portu-araubidea modu koherentean eta osotara erregulatzeko.

Bestalde, portuetako jabari publikoa ustiatzean errentagarritasun- eta efizientzia-irizpideak aplikatzen badira, gomendioa da ekimen pribatuaren parte-hartzea sustatzea eta handitzea.

Pentsakizun berri hori proiektuan islatu behar da, obra publikoa esleitzeko kontratuan ez ezik, portuko zerbitzuen araudian bertan ere; are gehiago, araudi horretan geratzen da ageriago gaur egun portuak eragile ekonomiko eta hainbat jardueraren kokaleku ere badirela.

LAUGARRENA.- Antolamendu juridikoan izango duen eragina.

Segur aski, proiektuko araua onartzeak ekarriko du lehen aipatu erregelamenduzko arauak indargabetzea; dena dela, araubide iragankor bat ezarri beharko da, legearen erregelamenduzko garapena aurreikusteko.

Bestalde, aurreproiektua egiteak eskatuko du baloratzea ea komenigarria den indarrean mantentzea kide anitzeko hainbat organok portuei buruz sortutako beste arau batzuk.

a) Portuen Aholku Kontseiluak, ekainaren 4ko 359/1991 Dekretuaren bidez sortuak.

b) Euskadiko Portu eta Itsas Gaietako Kontsulta Organoa, maiatzaren 23ko 90/2000 Dekretuaren bidez sortua.

Halaber, aurreproiektuak izan beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko Legearen Testu Bategina, irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak onartua, portuko tasa guztiak erabat eta sistematikoki arautzeko.

BOSGARRENA.- Proiektatutako arauaren eragina aurrekontuetan.

Dagokion memoria ekonomikoa egingo da; eta haren bidez aztertuko da Legea aplikatzeak izango duen eragina EAeko Aurrekontu Orokorretan, baita ekonomian, oro har, eta, bereziki, arrantza-sektorean ere, proposatutako araua portuko tasak biltzearekin lotzen ez den neurrian; hain zuzen, portu-jabari publikoaren okupazio pribatiboari lotutako tasak eta zerbitzu orokorrak emateari lotutakoak. Halaber, aurreikusita dago tarifak kobratzea portuko administrazioak zerbitzu bereziak emateagatik legeak aurreikusitako kasuetan.

Halaber, "berezizat" jotzen diren portuko zerbitzuak zein diren zehaztuko du; partikular baimenduek emango dituzte eskumen-araubidean, edo, nahikoa ez balitz, Portuko Administrazioak (sailak ezarritako tarifen arabera kobratuko du).

Azkenik, lege-hauste administratiboen motak jasoko dituen zehapen-araubidea aurreikusten da, zeinek zigor ekonomikoak ekarriko baitu. Hau da, horregatik ere diru-sarrerak izango ditu portuko administrazioak.

SEIGARRENA.- Beharrezko izapide eta txostenak.

1.- Arau-xedapenaren testua idazteko, agindu honetan esandakoa hartuko da oinarri, kontuan hartuko dira bilatzen diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukera guztiak, bai eta eskatuko diren kontsulten eta

txostenen emaitzak ere aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkontasuna bermatzeko.

2.- Administrazio honetako gainerako sailei eta Gobernuaren eragile juridikoei jakinaraziko zaie sustatutako araugintza-ekimena, Hasierako Agindu hau sartuz LEGESAREA lankidetzarako esparruan.

3.- Gainerako sailen jardun-eremuari lotutako ekarpenak eta gogoeta juridikoak aurkeztuko dira, aipatutako lankidetzaren sare horren bitartez, edozein unetan araugintza-proiektuaren alde aurreko onarpena baino lehenago.

4.- Lege-aurreproiektuaren testua Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak idatziko du, Zerbitzu Zuzendaritzaren lankidetzarekin.

5.- Memoria hauek erantsiko zaizkio arau proposamenari: justifikatiboa, ekonomikoa, generoaren araberrako eraginaren ebaluazioa, administrazio-kargak murriztea, eta enpresan duen eragina.

6.- Lege-aurreproiektua idatzi eta gero, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren alde aurreko onarpena jaso beharko du.

7.- Aldez aurreko onarpenaren agindua, eta, harekin batera, araugintza-proiektua, LEGESAREA lankidetzaren esparruan emango dira argitaratu.

8.- Entzunaldiaren izapidea Portu eta Itsas Gaietarako Kontsulta Organoaren bidez egin beharko litzateke, parte hartzeko bide organikoa baita portu-esparruko interes konkurrenteen esku-hartzea bideratzeko.

Horri dagokionez, aipatu behar da aipatu kontsulta-organoa sortu zela maiatzaren 23ko 90/2000 Dekretuaren bidez, izaera iragankorrekin Euskal Autonomia Erkidegoko Portuei buruzko Legea indarrean sartu arte.

Aipatutako organoa sortu zen portuko eta itsasoko gaietan kontsulta eta aholkularitza egiteko, baita eztabaidatzeko ere, eta sail honi dago atxikita. Haren osaera Garraio eta Herri Lan sailburuaren 2001eko martxoaren 27ko Aginduak zabaldu zuen. Organo zabal horretan, portu-jarduerako protagonista guztiak daude ordezkaturik, bai portu-esparruan eskumen konkurrenteak dituzten erakundeak, bai hartan diharduten eragile ekonomikoak eta sozialak.

Kontsulta-organo honen eginkizunen artean, hauek adierazten dira sortze-arauaren 2. artikuluan: sailak sortuko eta bidaliko dizkion arau-xedapenen

gai, plan eta proiektuak aztertzea, ikertzea, eztabaidatzea eta jakinaraztea. Eta txostenen izaerari dagokionez, sortze-arauaren 3. artikulua dio borondatezkoak eta behartze-indarrak gabekoak izango direla. Bada, sortze-arauaren bidez lortu nahi diren helburuak asmo handikoak badira ere, kontua da Euskadiko Portu eta Itsas Gaietako Kontsulta Organoa ez dela izan eraginkorra esleitutako eginkizunak betetzeko, osaera zabala izateagatik.

Ekimenaren organo sustatzailea den aldetik, Sail honek uste du aipatu organoaren deialdiak konplexutasuna areagotzea ekartzen duela. Ondorioz, eta arau-proiektua azkarrago izapidetzeko, eraginkorragoa iruditzen zaio aipatu organoa osatzen duten eragindako sektoreei banan-banan entzutea, kontsulta-organoak kide asko izatearen ondorioz txostena egiteko egon daitezkeen arazoak saihesteko.

Horrenbestez, aurreproiektuaren testua entzunaldirako bidaliko zaie aipatu kontsulta-organo horretako kide guzti-guztiei; hauei: Arrantzaren eskumena duen Saila; EUDEL; Bilboko Itsasketa eta Ontzi Makinen Goi Mailako Eskola Teknikoa; ITSASMENDIKOI; ADIMDE; Itsas Industrien Elkarte (EAEko Itsas Foroa); Bizkaiko eta Gipuzkoako Arrantzale Kofradiak; Arrantza-armadoreak (OPPAO, Ondarroako Itsas Zabaleko Arrantza Ekoizleen Erakundea); arrantzako produktuak merkaturatzen dituzten enpresak; Itsasoko Kirolzaleak; Klub Nautikoak; uretako jardueren klubak; portu-esparruan ordezkariak zabalena duten sindikatuak; Merkataritza Itsasketako Elkargo Ofiziala; EAEko Ontzien Elkarte; EAEko ganberak; Nautika eta Arrantza Tituludunen Elkarte; Ontziolak; Merkataritza Itsasketako Zuzendaritza Nagusia; Bilboko eta Pasaiako portu-agintariak; portuetako kaboak eta kalezaintzaileak; EAEko Bide, Ubide eta Portu Ingeiniarien Elkargoa; EAEko Herri Lanetako Ingeinari Teknikoen Elkargoa; Bermeoko enpresa emakidadunak eta zamaketa-arlokoak.

Era berean, Portu eta Itsas Gaietarako Kontsulta Organoan egon ez arren, Estatuko Administrazioari ere egingo zaio entzunaldia, Kostaldearen eta Itsasoaren Jasangarritasuneko Zuzendaritza Nagusiaren Kosta Zerbitzu Probintzialaren bidez (Ingurumen, Landa-gune eta Itsas Inguru-erakunde Ministerioa)

9.- Prozedura izapidetzean, aginduzko txosten hauek eskatuko dira:

a) Saileko Aholkularitza Juridikoaren txostena (abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 7.3 artikulua).

b) EAEko Ekonomia eta Gizarte Kontseilua (maiatzaren 17ko 8/2012 Legeko 3.1 a) artikulua).

c) Herri Administrazioekiko Harremanetarako Zuzendaritza (Euskadiko Udal Kontseilua, uztailaren 28ko 326/1994 Dekretuaren 2.1 a artikulua).

d) EMAKUNDE (otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa, 18. artikulutik 22. artikulura artekoak).

e) Ekonomia eta Ogasun Saileko Zerga Administrazioko Zuzendaritza (sail horren egitura organikoari buruzko apirilaren 9ko 192/2013 Dekretuko 17. artikulua).

f) Ekonomia eta Ogasun Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza (azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginaren 8.1 artikulua).

g) Kultura Sailaren txostena, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan duten eraginari buruzkoa, bai eta hizkuntza-esparruan indarrean dagoen araudira egokituta dauden erari buruzkoa ere (abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuko 2. artikulua).

h) Herritarrei Arreta emateko, Berrikuntzako eta Administrazioa Hobetzeko Zuzendaritza (Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuaren 18 c) artikulua).

i) Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomia- eta araudi-kontrolaren txostena (Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen III. tituluaren IV. kapitulua, eta urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren III. kapituluaren 3a atala). espediente osoa bidaliko zaio, baita memoria ekonomikoa ere.

j) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena; espediente osoa bidaliko da: Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.a) artikulua.

7.- Lege-aurreproiektuaren espedientean sartuko dira, hasteko agindu honekin batera, egindako txostenak, alegazioei buruzko memoria-txostena, baita prozedura osoaren memoria labur bat ere, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.2 artikuluan adierazitakoa barne.

8.- Lege-aurreproiektua Gobernu Kontseiluaren aurrean aurkeztu behar da, zeinek behin betiko onarpena ematea erabakiko baitu saio berean, edo azken idazketan kontuan hartu behar diren irizpideak ezarriko ditu, baita, hala badagokio, geroago izapidetzeko utziko dituen jarduerak, denak onartu arte, aipatu 8/2003 Legearen 13. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

9.- Hizkuntza bateko eta besteko bertsioen artean (gaztelaniaz eta euskaraz) egon behar duen baliokidetasun juridikoaren printzipioan aurrera egitearren, arau-testua euskarara itzuli beharko du IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak, bera baitu eskumena lege-proiektuak gaztelaniatik euskarara itzultzeko Eusko Legebiltzarrerara bidali baino lehen, aipatu Zerbitzua arautzen duen otsailaren 29ko 38/2000 Dekretuaren 4.1 a) artikuluen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 31
Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua

ANA OREGI BASTARRIKA